



DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren

Ebazpena, 2022ko maiatzaren 3koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaria, Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Berrikuspenaren irismen-dokumentua formulatzen duena.

AURREKARIAK

2022ko urtarrilaren 25ean, Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Berrikuspenaren irismen-dokumentua egiteko eskaera osatu zuen, 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legeari (21/2013, abenduaren 9koari) jarraikiz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Eibarko Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Indarreko legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea igarota, eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak behar beste judizio-elementu bazituela ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Abenduaren 9koa Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legea, 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei (II.A eranskinean zerrendatuta), bai eta haien aldaketei ere, legezko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu baldin badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.



Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa- Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspenaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua garatzea ingurumen-ondorioetarako soilik, jarraian adierazten diren terminoetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Eibarren indarrean dagoen hirigintza-plangintza Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren agiri bategina da. Dokumentu hori Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsi zuen 2007ko abenduaren 18an eta BAOan argitaratu zen 2008ko urtarrilaren 22an (15. zk.).

Orain izapidetzen den HAPOn helburua da gaur egun indarrean dagoen Eibarko Udalaren hirigintza-plangintza berrikustea, haren indarraldia iraungi delako eta ondoren eginiko hiri-azterketek ondorioztatzen dutelako ez direla berdinak Udalak gaur egun ezartzen dituen hirigintza-estrategiako helburuak eta indarrean dagoen HAPOn oinarritzat balio izan zutenak. Gainera, udal-plangintza egokitu nahi da gaur egungo lege-esparrura eta goragoko mailako lurralde-plangintzara.

Plana idazteko, sei helburu nagusi zehaztu dira, honako hauek bideratuta: ingurune naturala eta paisaia babestu eta hobetzea, udalerraren beharrianak kontuan hartuta planifikatutako aztarnan esku hartzea, kultur ondarearen balioa nabarmentzea, hiri jasangarria eta klima-aldaketara egokitu diseinatzea, lurraldearen oreka ekonomikoa lortzea eta hiri adeitsu eta erakargarriagoa lortzea. Aipatutako helburuetatik hainbat jarduketa-ildo ezarri dira, eta HAPOn berrikusteko zehaztutako proposamenetan islatu dira.

Lurralde-eredu berriko ingurune naturalerako proposamenak aintzat hartuta, urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruen kategorizazio berri bat zehaztu da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin (LAG) eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialarekin (LPS) bat eginda. Hona hemen kategoriak:

1. Babes berezia
2. Ingurumen-hobekuntza
3. Basoa
 - a. Basoa
 - b. Basoa - Mendi mehatza
4. Nekazaritza eta abeltzaintza, eta landazabala
 - a. Balio estrategiko handia
 - b. Trantsizioko landa-paisaia

5. Mendi-larreak
 - a. Mendi-larreak
 - b. Mendi-larreak - harkaitzak
6. Gainazaleko uren babesa

Deskribatutako kategoriei honako baldintzatzaile hauek gainjarri zaizkie:

1. Arrisku naturalak eta klima-aldaketa:
 - a. Akuiferoen kalteberatasuna.
 - b. Arrisku geologikoak.
 - c. Uholde-eremuak.
 - d. Klima-aldaketarekin lotutako arriskuak.
 - e. Sute-arriskua.
 - f. Arrisku sismikoa.
2. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin lotutako arriskuak.
3. Zarataren eraginpeko eremuak.
4. Azpiegitura berdeak
 - a. Bilbe urdina.
 - b. Funtzionaltasun ekologikorako interes-eremuak.
 - c. Natura-intereseko eremuak.
 - d. Aldirietako berdegune berriak
 - e. Espazio Libreen Sistema Orokorreko hiri-berdeguneak.
 - f. Ego ibaia estalgabetu daitekeen zatiak.
 - g. Geologia-interesdun formazioak.
 - h. Lurralderako sarbide-sarea (landa-xendak).
5. Zortasun aeronautikoak.

Hiri-lurzoru urbanizagarriari dagokionez, Planak 12 jarduketa-eremu zehazten ditu (Otaola; Amaña; Otaola-Argatxa; Argatxa lorategiak; Zezen Plaza; San Kristobal; Urki Bolingua; Bidebarrieta-Txonda; Sakun-Geltokia-Matsaria; Asua Erreka; Barrena; Azitain), eta hainbat esku-hartze identifikatu dira horietarako.

Ekonomia-jardueren lurzoruari dagokionez, proposatutako ereduak saihestu egiten du oro har lurzoru berriak okupatzea, eta dagoeneko garatuta dauden eremuak aprobetxatzen ditu. Halaber, ekonomia-jarduerak birgaitutako industria-eraikin zaharretan jartzea errazten du:

- Matsaria: industrialderako sarbidea hobetuko da eta ekonomia-jardueretarako eraikin berri bat proposatu da hegoaldean.
- Bidebarreita-Txonda: alternatiba batzuk eraikin zaharrak mantentzearen aldekoak dira, birgaitu eta berrerrabiltzeko.
- Barrena: hainbat alternatiba aurkeztu dira, besteak beste, desagerrarazi, eta etxebizitza edo espazio publiko bihurtzea, edo mantendu, eta merkataritzako eta sukaldaritzako erabilerekin bateragarri bihurtzea. Estalkiak aprobetxatzea proposatu da, plaza edo oinezkoentzako ibilbide lineal gisa.
- Asua Erreka: hobetzea eta erabat berritzea proposatu da, egungo industria-erabilereira eutsiz.
- Otaola: eremu horretarako proposatutako alternatiben artean, industria- eta zerbitzu-erabilera eraikinen multzo berri bat egitea proposatu da.

Bizitegi-lurzorua izanik, ez da aurreikusten bizitegi-garapen berririk, gaur egun hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa kalifikatutako lurzoruaz gain; berronartzea eta birgaitzea proposatzen da, eta eraikin berriak egitea, baina helburu jakin baterako soilik.

- Zezen Plaza: zezen-plazak eta Guardia Zibilaren kuartelak okupatzen duten lurzattia berrantolatuko da.
- Otaola: merkataritza-eremua berrantolatuko da, eta Argatxarekin lotu.
- Barrena: eremua birmoldatu egingo da, eta ibaia ardatz duen bizitegi-ingurune bihurtu.
- Txonta, San Kristobal, Bidebarrieta, Matsaria, Arragueta eta Amaña: bizitegi-eraikin berriak, etxadien barnean espazio libreak sortzea, etab.
- Otaola: egun dagoen pabiloia ordezkatzeko.
- Txonta: etxebizitza-eraikin berriak ekonomia-jardueretarako eraikinek okupatutako lurzoruetan, eta zerbitzu-eraikina berrerabiltzea bizitegi-erabilerarako.
- Bolingua: hainbat alternatiba proposatu dira, besteak beste, lurzoru urbanizagarria libre bihurtzea edo sailkapena kentzea.

Ereduak espazio libreen zuzkidura-sarea handiagotzea bultzatzen du, eta hainbat jarduketa proposatzen ditu, hala nola:

- Azitain, Asua-Erreka, Sakun-Matsaria eta Urki-Bolingua: aldiriko parkeak sortzea, hiriaren eta lurzoru urbanizaezinaren artean trantsizio gisa. Eremu bakoitzerako hainbat alternatiba proposatzen dira, eta horietan, espazio libreen tamaina aldatu egiten da.
- Espazio Libreen Sistema Orokorrean (ESLO) sartzen dira indarrean dagoen HAPOn zehaztutako azalera, lurzoru urbanizaezinean aurreikusitakoak jaso gabe, Arratekoa izan ezik. Lursail horiek, lurzoru urbanizagarriko proposamen berriekin batera, ESLOko guztizko azaleraren 377.868 m² edo 343.599 m² hartuko dituzte, azkenean adostutako alternatibaren arabera.

Ekipamenduen zuzkidura-sareari dagokionez, horien egungo azalera udalerriko beharretarako nahikoa dela uste da. Alabaina, proposamenek ekipamendu berriak zehaztea ahalbidetzen dute edo egun daudenak beste eremu batera lekualdatzea; horien erabilera ez da zehazten, eta udalaren etorkizuneko beharrezanetara egokitu ahal izango dira. Proposamenen artean hauek nabarmentzen dira: Zezen Plazan eta Guardia Zibilaren kuartelaren inguruan aurreikusitako zuzkidura-bizitokiak, bai eta ekipamendu pribatuak ere Asua Errekan.

Hilerriaren kasuan, hura berrantolatzea proposatu da, azalera murriztu eta zuzkidura-lurzati bat lortzeko, edo, bestela, beste leku batean birkokatzea eta bertako elementu babestuek soilik mantentzea. Birkokatzearen alternatibaren artean, HAPOn proposamena mantentzen da, Altamira, edo, bestela, Azitain eta Matsaria industrialdetara eramatea.

Planak mugikortasuna hobetzen eta hiri-bilbean ibilgailu pribatuaren presentzia murrizten duen lurralde-eredu baten alde egiten du. Proposatutako jarduketaren artean hauek nabarmentzen dira:

- Otaola: ibaiaren pasealeku berria, unibertsitateko geltokiaren sarrera hobetuz. Sestra azpian aparkalekua egiteko aukera, ospitalearen ondoan abandonatutako industria-lurzatiaren.
- Zezen-plaza: ibilgailu berriak jartzea eta igerilekuetarako sarrera hobetzea Untzaga plazatik.
- Amaña: disuasioko aparkalekua, saihebidetako sarreratik hurbil.
- Santa Ines kirol-eremua: eskailerak kale horren eta Elgeta errepidearen artean.
- Oinezkoentzako ibilbide alternatiboa hilerriari hartutako espazioetatik.
- Matsaria: kalea handitzea eta disuasioko aparkaleku bat ezartzeko aukera desokupatutako industria-eraikina dagoen lurzatiaren. INEMen eraikina eraistea, aparkaleku bat egiteko.
- Asua Erreka: eremu hori hiriaren gainerakoarekin lotzea. Disuasioko aparkaleku bat jartzeko aukera.
- Barrenarekiko lotura: eremu horretan ibaiaren zati handi bat estalgabetzeko aukera, eta oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide berri bat sortzeko. Gasolina-zerbitzuzugunetik hurbil dagoen industria-eraikina bizitegi-eraikin gisa berrerabiltzeko aukera, aparkalekuekin beheko solairuetan.
- Murrategi eremua oinezkoentzako pasealeku baten bidez lotzea hiriaren gainerakoarekin.

- Bidebarrieta-Txonta: aparkaleku berriak, zerbitzu-erabilerako eraikinei eusten dieten proposamenetan.
- Azitain: institutuaren lurzatian kanpoko aparkaleku bat.

Aldi berean, hainbat esku-hartze proposatzen dira trenbide-linean, unibertsitateko eta Azitaingo geltokien irisgarritasuna hobetzeko, eta Eibarko geltokia zentro intermodal bihurtzea. Hiriarteko garraio-zerbitzuari dagokionez, proposamenen artean hauek daude: egungo geltokia berrantolatzea gaur egun dagoen kokapenean edo bestela Otaola, Matsaria edo Azitainera lekualdatzea.

Hiri-zerbitzuen azpiegiturekin lotuta, ez da horiek garatzeko alternatibarik proposatu, honako hauek izan ezik:

- Pixkanaka, ur beltzen sareak Apraitzeko araztegi (Elgoibar) lotzea.
- Goitondoko industrialdeko (Mallabia) hondakin-uren arazoa lantzea.
- Landa-ingurunean telekomunikazioen sarea hobetzea.
- Egun dagoen uholde-arriskua txikitzea.

Planak garapen jasangarrirako irizpideak jasotzen ditu plangintzan, ura, energia eta beste baliabide batzuk aurrezteko, hondakin gutxiago sortzeko eta udalerriak klima-aldaketarekiko duen erresilientzia eta egokitzapena areagotzeko.

Azkenik, kultur eta industria-ondarearen arloan, indarrean dagoen HAPOk zehaztutako katalogoa eguneratzen du, eta beste hiru elementu jasotzen ditu (Zamakola lantegi-etxea, Orbe baserria, San Martin Apezikuaren baseliza), Euskadiko Kultur Katalogoan agertzen direnak. Gainera, Cerámica Eibarresaren tximinia udal-katalogoan sartzea proposatzen da. Prozesu horretan, zutik ez dauden eraikinak deskatalogatzea proposatzen da, bai eta beste eraikin batzuk eta horien zati batzuk ere, espazio publiko gisa aprobetxatu ahal izateko berrantolatzea eragozten baitute.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak

Ingurumen-azterketa estrategikoak baloratu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko Legean (abenduaren 9ko 10/2021 Legea) ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legean (azaroaren 25eko 9/2021 Legea) zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta era intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa eta hiri-barreiadura saihestea, bai eta mugikortasun behartua ere, eta irisgarritasuna sustatzea, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren bitartez, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaión sustatuz.

- d) Habitatak eta espezieak, natura-ingurunea eta lotura ekologikoa babestu eta hobetzea
- e) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoraztea eta lurzorua artifizializazioa mugatzea.
- f) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Ondare geologikoa kontserbatzea
- h) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.

Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Sustatzea energia aurrezte, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketarekiko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak minimizatzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzorua erabiltzaile potentzialen jardura indartuz.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen aldetik garrantzitsuak diren eremuak

HAPOn lurralde-eremua Eibar udalerrri osoa da, eta 2.456 ha-ko azalera du. Udalerrria Debarrena eskualdean dago. Udalerrri hauekin egiten du muga: iparraldean, Markina-Xemeinekin (Bizkaia); hegoaldean, Elgeta eta Bergararekin; ekialdean, Elgoibar eta Soralezekin, eta mendebaldean Mallabia, Ermua eta Zaldibarrekin (Bizkaia).

- Eibarko sare hidrografikoa Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikokoa da, eta, zehazkiago, haren zati handi bat, Deba ibaiaren unitate hidrografikokoa. Ego ibaiak mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du udalerrria, eta haran estu bat osatzen du, nagusiki Eibar hiriak hartzen duena. Ibaiaren ibilbidearen zati handi bat hiri-garapenaren azpian bideratuta eta lurperatuta dago. Maltzaga auzoan, ekialdean, ibaiak naturaltasuna berreskuratu eta Deba ibaiarekin bat egiten du. Ego ibaiaren adar nagusiak Eibarren hauek dira: Kortaxo, Karabia, Ardantxaerreka, Matxaria, Asua, Txarakoa, Gorostabeletxe eta Pagoaga ezkerrean, eta Ibur, Ubidieta, Unbe, Txonta eta Aiaga edo Kiñarra eskuinaldean. Bestalde, udalerriko ekialdeko muturreko ubide eta jariatze-urek Deba ibaiarekin bat egiten dute, eta ibilgu nagusia Zaturio ibaia da, Elgoibar udalerriarekin muga egiten den lekuan. Aldiz, Eibarko iparraldeko muturra Artibai ibaiaren unitate hidrografikoa sartzen da. Hor, jariatze-urak Urko ibaira joaten dira, eta ur horiek Artibai ibaira isurtzen dira, Eibartik kanpo.
- EAEko (Kantauriar isurialdea) ibaien eta erreken ertzak antolatzen Lurralde Plangintza Sektorialari (aurrerantzean, LPS) jarraikiz, osagai hidraulikoari dagokionez, Ego ibaiaren ertzak I. mailakotzat jotzen dira; hau da, 10 eta 50 km² arteko isurtze-arroa du. Haren erdiko zatia Eibar udalerritik igarotzen da, eta ez dago sailkatuta. Arestian aipatutako errekek 0. mailakotzat identifikatuta daude (1 eta 10 km²-ko isurtze-arroa), eta Deba ibaia IV. mailakotzat sailkatuta dago (400 eta 600 km²-ko isurtze-arroa). Horrez gainera, ingurumen-osagaiaren arabera, Maltzaga auzoan, Ego ibaiaren eskuineko ertza ondo kontserbatutako landaredia duen eremutat identifikatzen da, eta ibaian behera, Deba ibaiaren ezkerreko

ertza, Elgoibar udalerriarekin mugan, berroneratzeko beharra duen ertz gisa. Eibarren Zaturio ibaiaren ertzak ondo kontserbatutako landaredia duten eremutzat hartzen dira. Azitain industrialdearen iparraldean, Gorostabeletxe errekaen zati bat ondo kontserbatutako landaredia duten ertzak dituen eremutzat jotzen da. Azkenik, hirigintza-osagaiari dagokionez, ur-ibilgu gehienetak eremu garatuen ertz gisa edo hiriarteko komunikazio-azpiegiturek okupatutako ertz gisa hartzen dira, Ego ibaiaren mendebaldeko muturra eta Deba ibaia, adibidez. Hirigunetik aldenduago dauden ertzak landa-eremuko ertz gisa jotzen dira.

- Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko (KEPH) Eremu Babestuen Erregistroak hornidurarako ur-bilketa bat identifikatzen du Gorostabeletxe errekaen sorburuan. Iparraldeko muturra eremu sentikorretako bilketa-eremuetan sartuta dago. Azkenik, Urko erreka, Aginan, udalerraren iparraldean, natura-babes bereziko ibai-zati bat du (Urko 3).
- Udalerrria ez da Natura 2000 sareko naturagune babestua, ezta bestelako gune babestua, inbentarioan sartutako natura-intereseko gunea, espezie mehatxatuen babeskoa eta hezegunea ere. Halaber, ez dago jasota beste katalogo batzuetan (ez EAEko naturagune garrantzitsuen katalogo irekian, ez Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako interes naturalistikoko eremuen zerrendan), ez dira Onura Publikoko Mendiak identifikatzen eta ez dago EAEko Korridore Ekologikoen Sareko elementurik. Deba ibaia, Eibarko ekialdeko muturretik igarotzen den tartean, eta Urko ibaia EAEko azpiegitura berdearen bilbe urdinean jasota daude. Azitaingo industrialdeko mugan, Eibarko dikearen interes geologikoko eremua identifikatu da.
- Debarreneko Lurralde Plan Partzialak (LPP) udalerrian babestu beharreko ingurune fisikotzat hartzen ditu Arrateko eta Urko-Usartzako parkeak, natura-interesa izateagatik, baita AIG-0637 (Urko) eta AIG-0638 (Aiaga) ere, interes geologiko eta geomorfologikoa izateagatik. Gainera, hobetu beharreko eremutzat hartzen du udalerriko baso naturalen zati handi bat.
- Eibar udalerrria Bizkaiko sinklinaleko lurpeko ur-masaren gainean dago. Udalerraren ipar-ekialdeko erdia Soralezeko lurpeko ur-masaren sektorean dago, zeina gehienez interes hidrogeologikoko kokagune bat baita.
- Nekazaritza eta Basozaintzako LPSren arabera, udalerrian ez da identifikatu balio estrategiko handiko lurzorurik.
- Udalerrian Batasunaren intereseko 9 habitat mota daude, eta horiek azaleraren % 11 inguru hartzen dute guztira: Txilardi lehorrak europarrak (4030), altitude baxuko sega-belardi elkorak (6510), pagadi azidofilo atlantikoak (9120), gaztainondo-baso edo -landaketa zaharrak (9260), *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* espezieen basoak (9340), *Brachypodium pinnatum* duten larre mesofiloak (6210* orkidea ugarirekin), belardi menditarrak (6230*), kareharrizko amilburu-oineko baso mistoa (9180*), zumardiak eta lizardiak (91E0*).
- Hainbat lauki (1 km x 1 km) identifikatu dira, landare-espezie mehatxatuak topatu direnak, zehazki: *Lycopodium clavatum* Kalamua inguruan eta *Huperzia selago* Urko mendian; biak ala biak espezie arraroak.
- Udalerraren iparraldean, Gipuzkoa erdialdeko sektoreko bost eremu daude hegazti-faunak linea elektrikoetan talka egitetik eta elektrokutatzetik babesteko.
- Paisaiari dagokionez, herrigunea eta udalerraren zati handi bat Eibarko arroan daude; ipar-ekialdea Elgoibarko ikuspen-arroan eta ipar-mendebaldeko muturra Urko-Altoko arroan. Oso arro arruntak dira, paisaia-balio txikikoak edo oso txikikoak, eta ez daude jasota Paisaia Berezien eta Apartekoaren Katalogoan.
- Eibar udalerrian kultura-ondareko elementu ugari daude, interes kulturalako ondasun eraiki edo arkeologiko izendatuak. Halaber, udal-babeseko mailaren bat duten hainbat elementu identifikatu dira, edo izendatzeko proposatu direnak.

- Udalerrian, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzatiaren inventarioan jasotako 202 kokaleku identifikatu dira guztira; industria-jarduera aktiboak edo ez-aktiboak, betelanak edo zabortegeak dituzten lurzoruak dira.
- Eibar udalerririk uholde-arriskua dauka, Ego, Txonda, Unbe eta Deba ibaiekin lotuta. Zehazki, ibilgu horiek Uholde Arrisku Handiko Eremu (UAHE) gisa identifikatu dira, Mallabia-Eibar izenarekin (kodea: ES017-BIZ-DEB-05). Ibaiaren bideratze-maila kontuan hartuta, udalerrian uholde-arriskua duten lursailak ibilgukoak bertakoak dira hein handi batean, ibaian behera Azitainen dagoen zatia izan ezik.
- Oro har, udalerririk akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila apala edo oso apala du.
- Ia udalerririk osoa higadura oso txikiko edo lurzoru-galera onargarriko eremua da; hala ere, herrigunearen inguruan muturreko higadura-prozesuak dituzten zenbait eremu identifikatu dira. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSren arabera, higadura-arriskuak ageri dira udalerririk mendebaldean, Ego ibaiaren eskuineko ertzeko lursailetan.
- Udal-barrutian, bide-azpiegiturak dira zarata-foku nagusiak, batez ere AP-8 eta N-634, eta trenbidea (Euskotren Bilbo-Donostia).

Eibarko ingurumen-zarataren maparen arabera (2011), aipatutako azpiegiturretatik hurbilen dauden eremuak zarata-maila altuen eraginpean daude, eta gaingitu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak.

Bestalde, Gipuzkoako errepideen zarata-mapa estrategikoen arabera, udalerririk zati bat AP-8 eta N-634 errepideen afekzio akustikoko eremuaren eraginpean dago.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Planaren xede den eremuan ez da hauteman jarduketak egiteko eremu desegokirik, betiere aplikatu beharreko ingurumenari buruzko araudia betetzen bada, batik bat, arlo hauetan: sistema hidrologikoaren eta jabari publiko hidraulikoaren zaintza; uholde-arriskua; naturaren, landarediaren eta intereseko faunaren kontserbazioa; espezie aloktono inbaditzaileak; geologia; kultura-ondarea, eta kutsadura akustikoa.

5. Egindako kontsulterik emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra

Jarraian laburbiltzen da zein diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenak izapide honetan jasotako txostenetan: ukitutako administrazio publikoari eta pertsona interesdunari egindako kontsulta.

Natura-ondareari dagokionez:

- Ingurumen-azterketak jasoko du Plana zenbateraino egokitzen den ezarritako jasangarritasun-irizpideetara. Gutxienez, adierazle hauek aztertuko dira: haien egungo balioa, ingurumen-helburuak betetzat emateko lortu behar den balioa eta proposatutako plangintza aplikatzeak ekarriko duen balioaren kalkulua adierazita:
 - Habitat naturalek, erdi-naturelek eta naturalduet hartzen duten azaleraren ehunekoa.
 - Udal-plangintzak babesten duen azalera (Babes Berezikotako kategoriak eta Gainazaleko Uren Babesa).
 - Artifizializatutako azaleraren ehunekoa azalera osoaren aldean.
 - Biztanle kopurua hiri-lurzoruaren hektareako.
- Lurzoru urbanizaziona kalifikatzeko irizpideak.

- «Eibarko dikea» Geologia Interesdun Leku (GIL) gisa sartzeari gomendatzen da, HAPOn gainjarritako baldintzatzaile gisa, eta udal-mailan konponbideak aztertzea, hari balioa emateko.
 - Udalerrian dauden baso-masa autoktonoak eta Batasunaren intereseko habitat (BIH) lehenetsiak babes bereziko kategorian sartuko dira, eta, horrela, kontserbatzeko kautela-neurriak ezarriko dira, 92/43/EEE Zuzentarauan (11. artikulua), Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean (46.3 artikulua) eta LAGetan (II. eranskina, 1.a.2.d) ezarritakoaren arabera.
 - Gomendatzen da HAPOk gainjarritako baldintzatzaile gisa jasotzea hegazti-fauna babesteko eremuak; horietan, goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan talka egiteko eta elektrokutatzearen arriskutik babesteko neurriak hartu behar dira.
 - Gomendatzen da, halaber, gainjarritako baldintzatzaile gisa jasotzea udalerrian identifikatutako laukiak, *Lycopodium clavatum* eta *Huperzia selago* flora-espezie mehatxatuak dituztenak.
 - Azpiegitura berdearen barruan kontuan hartu behar dira tokiko mailan sistema orokor gisa kalifikatutako espazioak, eta, aukeran, espazio libreen eta berdeguneen tokiko espazioak.
- Garapen berrien eremuak proposatzeko irizpideak.
- Katalogatutako naturaguneei ez eragitea.
 - Garapen berrien kokapena lehenestea zehaztu-masa autoktonorik edo habitat lehenetsirik ez duten eremuetan, edo, hala badagokio, eremu horiek espazio libreetara bideratzea. Irizpide hori «Sakun-Geltokia-Matsaria» eta «Asua Erreka» eremuetan aplikatu behar da bereziki.
 - Plangintza zehatza garatzeko, Eremua Leheneratzeko Plan bat idatzi eta egikaritu behar da.
 - Intereseko landaredia kenduz gero, konpentsazio-neurriak hartuko dira, eragindako eremuaren azalera berdina edo handiagoa duen udalerriko eremu narriatu baten ingurumen-lehengoratzeari egiteko.
 - Natura-ondarearen ikuspuntutik garrantzitsuak diren espazioekin gainjarriz gero, beste aukera batzuk bilatuko dira garapen berriak jartzeko.
 - Azpiegitura linealen kasuan (errepideak, trenbidea...), iragazkortasuneko neurriekin lotuta gauzatuko dira. Horretarako, gomendatzen da Ingurumen Ministerioak argitaratutako *Prescripciones técnicas para el diseño de pasos de fauna y vallados perimetrales* dokumentua kontsultatzea.
 - Garapen berrien proposamenek esku-hartzearen paisaia-integrazioarako neurriak izan behar dituzte: landare-pantailak jartzea... Bertako espezieak erabiltzea eta ohiko lorategietatik at dauden konponbideak erabiltzea lehenetsiko da, ahalik eta espazio naturalizatuenak sortuz (gomendatzen da Iñobe10ek argitaratutako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua* kontuan hartzea).

Kultura-ondareari dagokionez:

- HAPOk kultura-balioak dituzten higiezinen eraispenak eta/edo ordezkapenak planteatzen dituzten proposamenak jasotzen ditu, hala nola Euskal Kultura Ondarearen Zentroak (EKOZ) monumentu izendatzeko proposamena dutenak edo udal-babeserako proposamena dutenak. Kultura-interesa duten elementu horiek eraisteko eta/edo ordezteko jarduketak ez dira EKOZk ezarritako irizpideekin bat datozen esku-hartzeak.
- HAPOren dokumentuak arkeologia- eta arkitektura-ondare izendatutako elementuen loturak, elementu horien zerrenda eta indarrean dagoen babes-araubidea jaso beharko ditu.
- Euskal Kultur Ondarrari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeari eginiko erreferentziak eguneratu beharko dira, eta horien ordezkari Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearenak jarri, indarrean dagoen terminologiara eta aplikatu beharreko babes-irizpideetara egokituta.
- Komeni da HAPOk barne hartzea udalerriko kultura-ondarearen katalogo osoa, elementu bakoitzaren banakako fitxak eta babes partikularreko araudi bat, EKOZen txostenaren 2. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorrira.

Kalitate akustikoarekin lotuta:

- HAPOk trenbidearen eragin akustikoa aurreikusiko du, eta erabilgarri dagoen trenbide-trafikoaren zaraten azken mapa hartuko du kontuan. Halaber, Euskal Trenbide Sareak kudeatutako trenbidearen Zortasun Akustikoko Eremuaren (ZAE) mugaketa jaso beharko du.

Arriskuekin lotuta:

- Udalerrian, hainbat eremuk 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-eremuak dituzte, Ego, Egora isurtzen den Txonta eta Deba ibaienak (ARPSI ES017-BIZ-DEB-05 MALLABIA-EIBAR). Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAeko Ibaien eta Erreken LPSean ezarritakoa bete beharko da.
- Kontuan izan behar da udalerrian Aixola presa dagoela. Presa hori hautsiz gero, uholde-lautadak gerta daitezke Eibarren.
- Udalerria salgai arriskutsuen zirkulazio-eremua da.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. Eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologikoari erantzun behar diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena

1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

1.3. Plangintza-alternatibak

2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

3. Ingurumen-ondorioak.

4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.

5. Ingurumena zaintzeko programa

6. Ingurumen-laburpena

7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a) Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, labur-labur jasoko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatzean, ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasangarriak.

b) Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian planaren gaineratik dauden plan edo programen onespren-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.

c) Hala badagokio, hierarkian planaren gaineratik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoetan finkatutako irizpideak eta zehaztapenak jasoko dira, baita horiek garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluazioaren xede den planaren eremuan edo xedean aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d.) Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Gutxienez, honako plan, arau edo estrategia hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Debabarrenako Alde Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021); bereziki uholde-arriskuko zonei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.

- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a) Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Azterketak Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

b) Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektuen ezaugarriei buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu Azterketak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean ahalik eta kalte gutxien sortzeko gidalerroak ezartzeko.

c) Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d) Plana behin betiko onartu ondoren, haren garapena zehaztuko da eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e) Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f) Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, *pdf* eta *shape* formatuetan.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a) Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b) Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c) Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d) Behar denean, modu kartografikoan jasoko dira aztertu diren aukerak.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea

Azterketak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren afekzio-eremutat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena –Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen gunek bakarrik hartuta–.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitezkeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurumenaren aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a) Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b) Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, igarobide ekologikoak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta egungo presioei eta mehatxuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotu egin daitezkeen adieraziko da.

lido horretan, azterketari erantsi beharko zaio planaren garapenak ukituko duen landarediari eta florari buruz dagoen informaziorik zehatzena eta eguneratuena, batez ere Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitatei dagokiena, lehentasunezkoen artean berezia eskainiz. Azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionalitate ekologikoa zehaztuko dira. Proiektuaren eremuan egun dauden landaredi moten banaketa-mapa zehatzak jasoko dira, bai eta bertan dauden Batasunaren intereseko habitatenak ere. Halaber, proiektuaren afekzio-eremuan egon litezkeen flora mehatxatutako espezieak zehaztuko dira, mehatxu-estatusa eta jarduketekiko hurbiltasuna adieraziz. Halaber, hala badagokio, eremuan dauden landaretza aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c) Paisaia. Aztertuko da ea elementu interesgarriak dagoen pertzepzio-ikuspuntutik.

d) Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren urrakortasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Era berean, ingurumen-arazoak deskribatuko dira, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeztzak espediente honi buruz emandako txostenean zehaztutako alderdiekin lotuta detektatu direnak, eta hauei buruzko informazioa emango da: parke eoliktik hurbil dauden edo horren eraginpean dauden herriak, baliabide hidrikoak eta ur-harguneak, airearen kalitatea, kutsadura akustikoa eta argi-kutsadura eta lurzorua erabilera.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e) Kultura-ondarea. Adieraziko da zein den hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, urrakortasuna, tresna eta babes maila. Era berean, aipatuko da zein arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babesa kultura-ondasunari.

HAPOk kultura-balioak dituzten higiezinak eraistea eta/ordezkatzea proposatzen du. Jarduketa horiek ez datoz bat Euskal Kultura Ondarearen Zentroak ezarritako irizpideekin, eta, gainera, HAPOk ezarritako helburuen aurka egingo luke, hain zuzen ere, «industria-historiari balioa ematea, leku bereizgarriak eta eraikinak babestuz hiri-bilbean», besteak beste. Azterketak alderdi hori argitu beharko du.

f) Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria, inguru horretako aisialdiko, mendi-ibilaldietako edo landa-turismoko jarduerak eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeke.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arriskuguneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeke. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintza dezaketen alderdiak honako hauek dira: baliabide naturalen kontserbazioari lotutakoak (Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko florako eta faunako habitatak eta espezieak), paisaiari lotutakoak (katalogatutako paisaien presentzia), kultura-ondareari lotutakoak (interes arkeologikoa eta etnografikoa duten elementuak) eta giza habitataren kalitateari lotutakoak, baita Azterketan aztertuko diren beste zenbait ere.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-eraginak

a) Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen planean bildutako ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien

ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterlan bat egingo da jakiteko da zer interakzio dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterlanaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragin dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketak eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren efektu metatzaile eta sinergikoak.

Hala dagokionean, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Bereziki, Ego ibaian eta haren adarretan izan dezakeen eragina eta jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremuaren gaineko eragina ebaluatuko dira, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da.
- Era berean, Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landaredi autoktonoan dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratu dira; bereziki hostotsuen masa autoktonoan eta identifikatutako intereseko landaredian dituenak.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko plan hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua).
- Horrez gain, aztertu egingo da ea Plana bateragarria den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Uholde Arriskua Kudeatzeko 2015-2021erako Planarekin, ARPSI ES017-BIZ-DEB-05 Mallabia-Eibarri dagokionez.
- Indusketetatik eta lur-mugimenduetatik eratorritakoak; bereziki, kutsatuta egon daitezkeen lekuak inbentariatuta dituzten eremuetan egiten diren.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa).
-

b) Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak edo ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia, planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen eragin horien iragarpenean.

c) Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

d) Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e) Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a) Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den Azterketaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio nabarmenik sortuko, Planeko ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak eta natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b) Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta azterlaneko 3 apartatuan identifikatutako efektuekin – prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Ur-ingurunea babesteko neurriak: obra-fasean, lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea ez murrizteko neurriak proposatuko dira, kontuan hartuta Ego ibaiak eta haren adarrek herrigunea zeharkatzen dutela.
- Hala badagokio, neurri prebentibo, zuzentzaile eta/edo konpentsatzaile espezifikoak proposatu beharko dira, intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko edo arintzeko eta natura-ondarearen galera garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea edo, bestela, aurreikusitako lehengoratzeeekin, positiboa).
- «Ingurumena eta paisaia lehengoratzeko plan» bat idatzi beharko da, HAPOn ondorio guztietarako (aurrekontua barne). Paisaia eta ingurumena lehengoratzeko eta integratzeko neurriak irizpide hauek kontuan hartuta definituko dira:
 - Zuhaitzak eta zuhaixkak taldetan eta lerroetan kokatuko dira, inguruko landaredi naturalarekin bateratuz.
 - Obrek aldi baterako eragindako gainazalak eta esku-hartzerik egin gabe geratuko diren espazio libreetako eremuak birlandatuko dira, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta. Ihobek argitaratutako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeako eskuliburua* hartuko da aintzat.
 - Protokolo bat idatziko da inbasio-prozesuak sor ditzaketen landare-espezie aloktonoak kontrolatzeko eta ezabatzeko (adibidez, *Cordaderia selloana*, *Buddleja davidii*, *Fallopia japonica*, etab.).
- Oro har, bermatu beharko da betetzen dela EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua

Kudeatzeko Planean (2015-2021) ezarritakoa. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta sustatuko da, ahal denean, horiek lehengoratzea, biziberritzea eta hobetzea.

- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia bete beharko du, uholde-arriskuko zaintza-eremuko erabileren mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua), bai eta EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planaren araudia ere (E.2 atala).
- Kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAeko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.
- Planaren eremuan dauden lurzoru kutsatuak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera: *Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legea* eta *209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena*.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Azkenik, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenari jarraikiz, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketan egon daitekeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak. Xede horrekin, lhobek egindako honako gidaliburu metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua*. (Udalsarea 21 lan-koaderno) eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

c) Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d) Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e) Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentziorako eta zuzenketarako neurrien aurrekontu-zenbatespena ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a) Azterketan, ingurumena zaintzeko programa bat garatuko da, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzeko jomuga izan beharko dute:

- Gainbegiratzea ea behar bezala ezartzen diren planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeko eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b) Jarraipen-neurriak Azterketaren 6.4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin identifikatuko dira, eta horiekin bat etorri beharko dute.

c) Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, baita proposamen zehatz bat ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6. Ingurumen-laburpena.

a) Deskribatuko da zelan txertatu planean ingurumen-alderdiak. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, Azterketaren 6.1.1 apartatuan deskribatutakoak.

b) Aztertu egingo da zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta beharrezko argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero oso arrisku txikia dagoela efektu esanguratsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

a) Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorrotutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du

b) Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen (administrazio publiko ukituei eta interesdunei kontsultatzeari buruzkoaren) 73. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin (dokumentu honen eranskinean ageri dira) kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera.

Honako hauek dira:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenaren eta Europar Politikaren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- IHOBE
- Uraren Euskal Agentzia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia, Mendiak eta Eredu Naturalen Zerbitzua
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Lurralde Oregako Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia
- Euskal Trenbide Sarea.
- Recreativa "Eguzkizaleak".
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organuari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/es_def/adjuntos/2022_GUIA-presentacion-documentacion_v4.pdf

Bigarren. – Ebazpen hau Eibarko Udalarari jakinaraztea

Hirugarren. – Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 3a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria.

Javier Aguirre Orcajo.